Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

*Samuel Biscay*

*Aiherra, Nafarroa Beherea (1988)*



Aurkibidea

# Biografia



1988ko martxoaren 24an jaioa zen, Baionan, baina Aiherran bizi izan da betidanik, eta Aiherrakoak ditu ere ama eta aita. Hiru anaiatan gazteena da eta kontablea da lanbidez. Elkarrizketa egin garaian hautetsi izendatu berriak izan ziren (2014ko martxoan) Aiherrako Herriko Etxean, bai Samuel eta bai Leire, Samuelekin batera elkarrizketatutako laguna. Hizkuntza kontuei buruz (tratamenduak, etxeko ohiturak ...) eta Aiherrako zein inguruko gazteek aisialdian dituzten joeren gainean jarduten du, batez ere.

# Zintak

## AIH-001

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Data**: 2014-10-25
- **Iraupena**: 104 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Errazkin, Aitor

# Pasarteak

## 1. Etxeko hizkuntza giroa

- **Erref**: AIH-001/004
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Aitarekin euskaraz egiten du Samuelek; amarekin frantsesez errazago, euskaraz baino; eta anaiekin bietara. Lantokian, geroz eta gehiago egiten du euskaraz. Leirek euskaraz egiten du etxean, baina hortik kanpo, lanean eta lagun artean, parean duenaren arabera. Lagun talde bereko parte dira Leire eta Samuel, eta euren artean euskaraz egiteko ohitura badute ere, euskaraz ez dakien lagunik bada, frantsesez egiteko ohitura dute.

## 2. Aiherrako hizkuntz errealitatea

- **Erref**: AIH-001/006
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Herri euskalduna da Aiherra, baina bada zertan indar egin, Leire eta Samuelen ustez. Eurak hautetsi lanetan hasi aurretik ez omen zen herriko etxetik euskara sobera bultzatzen. Orain, aldiz, asmo horrekin dira, beharra ere sumatzen baitute.

**Transkripzioa**
- Samuel: Aiherran hola da, Aiherran... berezia da.
- Leire: Hala ere, ainitzek badakite.
- S.: Bai, hala ere Aiherra aspaldidanik...
- L.: Herri euskalduna da.
- S.: Bai, euskalduna da eta guk betidanik gure partidoan eskuara hori nahi dugu hala ere... bultzatu nahian gira, bai bere aitarekin, bai kultura mailan Aiherran. Eta, beraz... eta, oai, herriko etxean sartu gireno, hori nahi dugula ere indartu, zeren ta orai arte... Hori da... [Aiherrako] herriko etxeak euskarari buruz ez zuen /etzuen/...
- L.: Indarrik egiten.
- S.: Ez zuen batere indarrik egiten.
- L.: Gero ba euskara bazakiten, e! Bainan...
- S.: Bainan ez zuten /etzuten/ batere hori...
- L.: Hala da, etxeko...
- S.: ... bultzatzen, ez eta parte hartzen euskal kulturaren [...].
- L.: Hala da.
- Ados. Eta han jendearekin esan dezute euskaraz ari den jende dexente dagoela, ezta? badela, ez?
- L.: Bai, bai, bai.
- S.: Bai, bai, bai, [...] ere bai denak.
- L.: Hala batzuk badira hor kanpotik etorriak eta ez dakite, baina, bestenaz, aihertar gehienak badakite euskaraz.
- S.: Ba, ba, ba. Aiherrako famili gehien-gehienak euskara badakite.
- L.: Bai, bai.
- S.: Eta batzuek [bakarrik euskaraz], joaiten bagira famili... aitatxi eta amatxi batzuen mintzatzerat...
- L.: Ez dakite frantsesez.
- S.: Frantsesa [...].
- L.: Ez, ongi ez.

## 3. Eguneroko martxa

- **Erref**: AIH-001/008
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:07:31. **Bukatu**: 00:09:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Samuelen eta Leireren eguneroko martxan lanak asko baldintzatzen du zein hizkuntzatan egin. Leirek, irakasle izaki, euskaraz aritzeko aukera gehiago ditu Samuelek baino.

## 4. Euskara gertutasun zeinu

- **Erref**: AIH-001/010
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:09:43. **Bukatu**: 00:11:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Samuelek nahi luke euskaraz gehiago egin lanean. Kontuegilea da bera, eta argi du bezeroekiko harremena gertuagokoa dela, euskaraz denetan.

**Transkripzioa**
- Zaila...
- S: Zaila zen ta... lana bera eskuara ez da bate bariatua. Nik... antzatzen naiz, bazen ta ere, kontable niz, beraz ditut bezero... klientak asko, anitz, eta horietan badut bat baino eskualduna. Eta berarekin, aldi guziz deitzen dutalaik hitzordua edo berarekin eskuaraz. Zeren ta badaki ere, ta... usaia hartu dut berarekin itea eskuaraz. Mais beste guziak, eta ari naiz... dira Angelu, Miarritze, Baiona... ez dira, ne ustez ez dakite ere eskuaraz, eta beti antzatzen naiz beharbada hitz bat usatzea eskuaraz mais...
- Eta zuk nahiko zenuke errealitate hori aldatzea?
- Bai. Bai, zeren eta nik gainera ofizio hori biziki gustuko dut eta nere ustez eskuarak ekartzen ahal du ofizio hortan, zeren eta eskuarak beste harreman bat ekartzen du jendeari. Ne ustez konfientxa bat da kontua gehienbat, eta ne ustez eskuara sartzian konfiantxa gehiago hartzen dugu zeren eta sentitzen dugu hizkuntza bera dugula eta eskualdunak girela. Frantsesak ez din... frantsesa da... denek baliatzen dute frantsesa, ez du holako... Beraz hori nahi nuke, bai. Esan liteke bainan ez ditut nik ene klientak hautatzen. Hartzen ditut ukaiten dituztanak.

## 5. Lagunartearekin asteburuetan

- **Erref**: AIH-001/012
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:11:36. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Aisia » Jai-giroa

**Laburpena**:
Leire eta Samuel asteburuetan biltzen dira lagunartean, batez ere. Hazparnen bildu ohi dira, gehienbat. Hazparnen zita egin eta asko mugitzekoak dira: Itsasura, Baionara, Garazira...

## 6. Besta egiteko tokiak eta ohiturak

- **Erref**: AIH-001/013
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:13:24. **Bukatu**: 00:16:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Aisia » Jai-giroa

**Laburpena**:
Baiona ttipira joateko ohitura dute Leirek eta Samuelek. Euskal giroko taberna gutxi omen da bertan. Dantxarineako Nuba dantzalekura joateko ohitura ere bazuten, garai batean, eta gaztetxeetako giroa ere maite dute; tartean, Hazparneko Ttattola aipatzen dute.

## 7. Gazteen artean hainbat joera euskararekiko

- **Erref**: AIH-001/015
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:17:07. **Bukatu**: 00:19:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara

**Laburpena**:
Euskarari dagokionez, hainbat joera sumatzen dute Leirek eta Samuelek euren inguruan; euskara ikastera barnetegira joandakoetatik hasi, eta, euskaraz jakinagatik ere, lagunarte erdalduna izaki, euskara galdu edo baztertu dutenetaraino.

## 8. Hizkuntza ohituren pisua

- **Erref**: AIH-001/016
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:19:28. **Bukatu**: 00:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Euskal Herri guztian bezalaxe, Leirek eta Samuelek lan gaitza irizten diote zenbait pertsonekin eraikitzen ditugun hizkuntza ohiturak aldatzeari. Inguruan adibide frango dituzte.

## 9. Erramoldeak eta umorea

- **Erref**: AIH-001/018
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:23:21. **Bukatu**: 00:25:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
"Ze gauza", "izigarri" eta "sobera" asko erabiltzen dituzte Leirek, Samuelek eta haien inguruko hainbat lagunek. Euskal hitz eta espresioak dira, baina hainbat eta hainbat egoeratan erabiltzen dituzte, eta batzuetan, baita oker erabili ere (nahita, beti ere), lagunartean umorea egiteko; esate baterako, "sobera bikain".

## 10. Hitz larriak. Sakreka aritzea

- **Erref**: AIH-001/020
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:26:38. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Samuelek aitari jasoak dizkio euskaraz hainbat hitz larri. Biraoka aritzeari sakreka aritzea esaten diote. Leireren amak "ments" hitza asko erabiltzen du. Gazteen artean, joera, hitz larriei dagokionean, behintzat, euskaraz abiatu bai, baina "zerrendak" frantsesez amaitzea omen da.

## 11. "urdea" bidean galdu da

- **Erref**: AIH-001/022
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:29:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Hitz larri eta irainei buruz ari garela, "pitoa", "astapitoa" edo "debru pitoa" ohikoak direla ohartu gara, baina "urde" hitza, gurasoei entzuna badiete ere, Leirek eta Samuelek ez dute iraintzeko erabiltzen.

## 12. Xuka aritzea

- **Erref**: AIH-001/024
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:31:49. **Bukatu**: 00:33:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
Leirek eta Samuelek etxetik jaso dute xuka hizkera moldea. Euren iritzia ematen dute tratamendu honi buruz. Leireren kasuan, esaterako, haur ttipien irakasle izaki, buruak ez dio agintzen haur batengana zuka zuzentzea; xuka egingo dio beti. Etxean ere xuka egiteko joera du Leirek, baina lagun artean zuka aritzen da, gehienbat.

## 13. Toka eta noka

- **Erref**: AIH-001/027

- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:37:10. **Bukatu**: 00:39:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Leireri aitonak egiten zion noka. Geroztik beste inork ez. Urepeleko lagun batekin eta Garaziko ikaskide ohiekin toka aritzeko usaia du Samuelek, baina neskekin beti zuka aritzen da; sekula ez noka (gaztetan bazenik ere ez zekien).

## 14. Umorea egiteko tratamendua zein euskalkia aldatu

- **Erref**: AIH-001/028
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:41:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Euskal Herri guztian bezalaxe, Aiherratarrek ere badute tratamendua eta euskalkiak umorearekin lotzeko joera.

## 15. Xiberutarrez trufaka (fede onez)

- **Erref**: AIH-001/030
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:44:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena**:
Xiberutarrak imitatzeko "prefosta", "haboro" eta "ü" bokala denean emateareki aski da.

## 16. Hegoaldekoez trufaka (fede onez)

- **Erref**: AIH-001/032
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:46:14. **Bukatu**: 00:47:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Betidanik antzeratu izan dituzte hegoaldekoen mintzatzeko manerak; umorea egiteko bide izan dute beti.

## 17. Hitz gakoak

- **Erref**: AIH-001/034
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:48:32. **Bukatu**: 00:50:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
"Untsa", "beraz", "xarmanki" eta "bikain" dira Samuel eta Leirek gehien erabiltzen dituzten euskal hitzak; eta frantsesetik hartua, aldiz, "xanpiona"!

## 18. "z" eta "x" soinuak bereizten

- **Erref**: AIH-001/036
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:53:09. **Bukatu**: 00:54:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Soinuak soinu eta fonemak fonema, euskalki guztietan egiten den bereizketa da Samuel eta Leirek aipatzen dutena, baina eurek usu egiten omen dute "z" eta "x"ren bereizketa, hala hitzaren esanahaia eta zentzua zehazten dituztelarik.

## 19. Xukaren transmisioa

- **Erref**: AIH-001/037
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:54:36. **Bukatu**: 00:56:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Xukaren transmisioa ahozkotasunean oinarrituta dago hein handi batean, baina Izpura eta Garazi inguruko ikastetxeetan ere irakasten dela edo, bederen, irakasle batzuk ikasle gazteekin erabiltzen dutela dio Leirek.

## 20. Euskara batua I

- **Erref**: AIH-001/040
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 01:00:02. **Bukatu**: 01:02:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Samuelek eta Leirek beharrezko ikusten dute euskara batua, baina euren euskalkia jartzen dute haren gainetik, mintzatzeko garaian, batez ere.

## 21. Euskara batua II

- **Erref**: AIH-001/041
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:02:41. **Bukatu**: 01:03:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
Gazteek geroz eta gehiago ezagutzen dute euskara batua. Samuelek Antton Lukuk Garazin kontatutako pasadizoa dakar gogora.

## 22. Euskal Irrati Telebista

- **Erref**: AIH-001/043
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:04:06. **Bukatu**: 01:05:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

**Laburpena**:
Samuelek eta Leirek txikitan begiratzen zioten euskal telebistari, baina gaur egunean ez; batez ere, telebista digitalak aukera hori eskaintzen ez dielako.

## 23. Irratia euskaraz

- **Erref**: AIH-001/044
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:05:40. **Bukatu**: 01:07:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

**Laburpena**:
Autoan irratia euskaraz entzuteko ohitura dute Smuelek eta Leirek.

## 24. Erramoldeak eta umorea II

- **Erref**: AIH-001/046
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:07:35. **Bukatu**: 01:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena**:
"Aluia" eta "astaputza" hitzak ere erabiltzen dituzte; eta baita "Jesus, Maria eta Josepe" erramoldea ere, irri egiteko. Leireren ustez, euskaraz ez da nahikoa hitz "gaiztorik".

## 25. Telefono mugikorra

- **Erref**: AIH-001/048
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 01:10:22. **Bukatu**: 01:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena**:
Sakeleko telefonoari mugikorra esaten diote, eta euskaraz zein frantsesez aritzen dira idazten. Garai batean, SMS mezuen garaian, frantseserako joera gehiago zuten, errazago laburtzen baita. Egun ez dute hizkuntzaren arazorik, eta hitz guztiak osorik idaztearen aldekoak dira.

## 26. Erdaldunekin euskaraz

- **Erref**: AIH-001/050
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:14:34. **Bukatu**: 01:16:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Erdaldunekin izaten dituzten hartu-emanetan beti saiatzen dira keinutxo bat egiten euskarari.

## 27. Hegoaldean lehen hitza euskaraz

- **Erref**: AIH-001/051
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:16:36. **Bukatu**: 01:18:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Hegoaldean lehen hitza euskaraz emateko joera dute Samuelek eta Leirek.

## 28. Iparraldetik hegoaldera

- **Erref**: AIH-001/052
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 01:18:11. **Bukatu**: 01:19:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena**:
Samuel eta Leireren ustez iparraldeko gazteek joera gehiago dute hegoaldera joateko, alderantziz baino.

## 29. Iparraldeko euskal "sarea"

- **Erref**: AIH-001/054
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 01:19:46. **Bukatu**: 01:21:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Leirek eta Samuelek diote euskal sare osasuntsu eta dinamikoa badela Lapurdi, Baxe Nafarroa zein Xiberuan.

## 30. Euskararen etorkizunari buruz

- **Erref**: AIH-001/063
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:29:26. **Bukatu**: 01:30:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
26na urte dituzte Leirek eta Samuelek, eta argi dute ez luketela nahi belaunaldiz belaunaldi jasotako hizkuntzaren etena euren erruz gertatzea.

## 31. Dantza taldean

- **Erref**: AIH-001/065
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:31:19. **Bukatu**: 01:32:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena**:
6 eta 8 urterekin hasi ziren euskal dantzak ikasten. Euren euskal izaerari estuki lotua ikusten dute dantzan aritzea. Dantza irakasle ere badabiltza.

## 32. 6 urterekin dantzan ikasten hasi

- **Erref**: AIH-001/067
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:32:53. **Bukatu**: 01:33:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena**:
Leire dantza egiten ikasten hasi zenean, frantsesez jaso zituen eskolak urte oso batez, irakasleak ez baitzekien euskaraz. Gaurko haurrek hastapenetik dute euskaraz ikasteko aukera.

## 33. Leire eta Samuel, Aiherrako Herriko Etxeko hautetsi

- **Erref**: AIH-001/069
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:34:12. **Bukatu**: 01:36:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika

**Laburpena**:
22 urtez jarraian euskal abertzalea ez zen auzapeza izan du Aiherrak. Egoera hori aldatu nahian, zerrenda mixto bat osatu zuten zenbait herritarrek Aiherran, 2014.urteko bozetarako. Zerrenda horren partaide dira Leire eta Samuel, eta hautetsi dira, gaur egun.

## 34. La langue de la République est le français

- **Erref**: AIH-001/073
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 01:37:50. **Bukatu**: 01:38:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Euskararen ofizialtasuna hurrun ikusten dute Leirek eta Samuelak Lapurdi, Baxe Nafarro eta Zuberoan. Aurrerabide bakarra Europatik etor litekeen presioan ikusten dute.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-24*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com